Bestelako Xedapenak

**JUSTIZIA ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

3683

AGINDUA, 2010eko maiatzaren 12koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «Fundación Gure Gauzak» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Bakioko (Bizkaia) «Fundación Gure Gauzak» fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztutako espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

1.– Rosa María Martiartu Guezuragak «Fundación Gure Gauzak» fundazioa sortu zuen, 2009ko maiatzaren 29an Bilboko notario José Marái Rueda Armengoten aurrean emandako eratze-eskritura publikoaren bidez (protokolo-zenbakia: 1505).

2009eko ekainaren 4an sartu zen eskritura hori Justizia eta Herri Administrazio Sailean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren Aholku Batzordea bildu zen, fundazioaren helburuak zilegi eta guztiontzako onuragarri direla egiaztatzeko. Batzorde horrek fundazioa erregistroan inskribatzearen aldeko txostena eman zuen 2010eko apirilaren 23an.

2.– «Fundación Gure Gauzak» fundazioaren helburua estatutuen 3. artikuluan dago jasota:

Gure Gauzak fundazioaren helburu eta jarduerarik nagusienak eta berehalakoenak hauek dira: tradizioak sustatu, gauzatu, lagundu eta finantzatzea, Euskal Mitologia Zabaltzea, pintura-erakusketak, San Juan de Gaztelugatxen San Juan eguneko antzerkia sustatzea, eta fundazioaren berezko helburuak lortzen laguntzen duen beste edozein aisia- eta kultur-jarduera.

3.– Fundazioaren helbidea, fundazioaren estatutuetako 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hau da: Gibelorratzagako San Pelaio 80, Bakizo (Bizkaia).

4.– Hasierako dotazioa hiru mila eta sei (3.006) eurokoa da, eta kopuru hori ordaindu dela jasota geratu da erregistro-inskripzioan, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 37.1.c) artikuluak.

Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

3683

ORDEN de 12 de mayo de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco la denominada «Fundación Gure Gauzak».

Visto el expediente por el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la denominada «Fundación Gure Gauzak», de Bakio (Bizkaia), sobre la base de los siguientes:

ANTECEDENTES DE HECHO

1.– Por Dña. Rosa María Martiartu Guezuraga se ha constituido la denominada «Fundación Gure Gauzak» mediante Escritura pública de constitución otorgada el 29 de mayo de 2009, ante el Notario de Bilbao, D. José María Rueda Armengot, número 1505 de su protocolo.

Dicha escritura tuvo entrada en el Departamento de Justicia y Administración Pública el 4 de junio de 2009.

Reunida la Comisión Técnica de la Comisión Asesora del Protectorado de Fundaciones del País Vasco con la finalidad de verificar la licitud e interés general de los fines fundacionales, emite, con fecha 23 de abril de 2010, informe favorable a su inscripción registral.

2.– El fin fundacional de la denominada «Fundación Gure Gauzak» viene establecido en el artículo 3 de su norma estatutaria:

La Fundación Gure Gauzak tiene por objeto y como actividades concretas más importantes e inmediatas el promover, realizar, apoyar y financiar Tradiciones, Difusión Mitológica Vasca, exposiciones de pinturas, la promoción del Teatro el día de San Juan en San Juan de Gaztelugatxe y cualquier otra actividad de ocio o de tipo cultural conducentes a la realización de sus finalidades propias.

3.– El domicilio fundacional, conforme dispone el artículo 5 de los Estatutos fundacionales, radicará en: Gibelorratzagako San Pelaio, n.º 80 de Bakio (Bizkaia).

4.– La dotación inicial asciende a la cantidad de tres mil seis (3.006) euros, cuyo desembolso es acreditado documentalmente en el expediente de inscripción registral, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37.1.c) del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

5.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, fundazioaren estatutuetako 12. eta 18. artikuluan jartzen duen moduan.

6.– Hasierako Patronatua, estatutuetako 4. artikuluan ezarritakoaren haritik Fundazioaren eraketa-eskrituran xedatutakoaren arabera, honako honek osatzen du:

Kargua	Iraupena
Lehendakaria: Rosa María Martiartu Guezuraga.	Mugagabea

Izendatuak onartu du dagokion kargua, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio Fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala agintzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 40. artikuluan; halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3. artikuluan; eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuko 4. artikuluan.

Bigarrena.– Horretarako legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako eskakizunak.

Arauak eta oro har, kasu honetan aplika daitezkeen gainerako arauak ikusi dira.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Gaurko egunean, Bakioko (Bizkaia) «Fundación Gure Gauzak» fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan F-266 erregistro zenbakiarekin inskribatzeko agintzea, baita patronatuaren hasierako osaera ere; seigarren aurrekarian ageri da nola dagoen osatua patronatua, eta kargua berariaz nork onartu duen adierazten da.

5.– La representación, administración y gobierno de la Fundación se confía al Patronato, cuyos miembros desempeñarán sus cargos con carácter gratuito, de acuerdo con los artículos 12 y 18 de los Estatutos fundacionales.

6.– El Patronato inicial, conforme se establece en la escritura de constitución fundacional siguiendo lo establecido en el artículo 4 de los Estatutos, está integrado por:

Cargo	Duración
Presidenta: doña Rosa María Martiartu Guezuraga	Indefinida

La nombrada ha aceptado su cargo conforme las formas previstas en el artículo 12.1 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– Corresponde a la Consejera de Justicia y Administración Pública, mediante Orden, la resolución del expediente de inscripción de constitución de la Fundación, en virtud de lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco; el artículo 3 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio; y el artículo 4 del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública.

Segundo.– El presente expediente ha sido promovido por persona legitimada para ello, y al mismo se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos señalados en los artículos 6, 7 y 9 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y 36 y ss. del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Vistas las normas mencionadas y demás normas de general y pertinente aplicación.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,

RESUELVE:

Primero.– Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, con esta fecha y bajo el número de F-266 de la constitución de la denominada «Fundación Gure Gauzak» de Bakio (Bizkaia), así como de la composición inicial del Patronato integrado por el miembro que figura en el antecedente sexto, quien ha aceptado expresamente su cargo.

Bigarrena.– Fundazio hori, bere helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 3. sekzioan inskribatzea, kultura, gazteria eta kirolen fundazioen sekzioan hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko maiatzaren 12a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

Segundo.– Clasificar a dicha Fundación, en virtud de sus fines, en la Sección 3.ª del Registro de Fundaciones del País Vasco, relativa a las fundaciones culturales, juveniles y deportivas, conforme lo dispuesto en el artículo 2.2 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco.

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante esta Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de mayo de 2010.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.